

# HERNANIKO ESKULANGINTZA ERAKUSKETA

— Herri Jakintza Taldea —

**H**ERNANI aldizkariko arduradunek gurekin harremanetan jarri ziren gure taldeko egoera, eta batez ere etorkizunari begira, lerro labur batzuk idazteko gonbidapenarekin. Eskaerari baiezko erantzuna eman genion **HERRI JAKINTZA TALDEA**ri buruzko istorioa esplikatzeko aukera ona ikusten bait genuen.

Kultur elkarte honen jaiotza 1980.urtean kokatu behar da. Urte horietan euskal kulturaren aldeko taldeak ikaragarri ugaltu ziren, euskal kulturaren alde lan egiteko amorrua bait zegoen, beraz **HERRI JAKINTZA TALDEA** kezka horretan kokatu behar dugu. Kontutan eduki lehen hauteskunde demokratikoak 1977.urtean izan zirela, Francoren garaian euskal kulturaren alde ezer gutxi egin bait zatekeen. Zein kultur alde irauten duten eta zeintzuk ez, soziologo edo beste esperto batzuk aztertu beharko dute.

Talde honen sorrera Erreteriko eskulangintza erakusketa batetan gertatu zen. Bertan Pablo Lasa bere lanean zegoen bitartean, uztargilea bait zen, Jaxinta Mendiola hurbildu zitzaion Hernanin ere horrelako egun bat antolatu behar zela esanez. Ideia asko gustatu zitzaion Pablori eta berehala hasi ziren lanean. Hasiera batetan oso eskulangle gutxi etorri ziren, hamarren bat. 1980.urtean kokatu behar dira lehen urrats hauek. Erreteriko erakusketa bukatu bezain laister lanean hasi ziren eta lehen pausoa jendea bilatzea denez talde polit baten laguntza jaso zuten, horrelako antolakuntza batek jendearen beharra bait du. Artesauak elkartzeko Pablo zen aproposena, berak ezagutzen bait zituen, eta berari esker etorri ziren lehen hamar artesau horiek. Eguna hurbiltzen zen heinean Pabloren osasuna itzaltzen hasita zegoen, gaxotasunak berehala eraman zuen, 1980ko Abenduaren 3an



Pablo Lasa uztargilearen oroimenez.



gertatu zen horrela, ba Pablok ez zuen ikusi lehen erakusketa, bere orde z bere ikasle bat ihardun zen uztargile lanetan. Egun batzuk beranduago Jaxinta Mendiola alargunaren etxera joan zen doluminak ematera eta bertan Hernaniko Eskulangintza Erakusketak Pablo Lasa izena eramango zuela hitz eman zion, geroztik horrela izanik. Era honetan Pablo Lasa izenaren zergatia argituta geratu dela espero dugu.

Lehen pauso hauetan bi pertsonai hauen garrantzia ezinbestekoa izan dela argi dago, gaur ere Jaxinta Mendiolak lehen antolatzaile bezala jarraitzen du, erakusketaren zutabe nagusia izanik. Hasiera batetan Pablo eta Jaxintaren burutazio bat besterik ez zena azkenean Hernanin ospatzen den kultur eginkizunik garrantzitsuenetariko bat bilakatu da eta barkatu umiltasun faltagatik. Lehen esan dugun bezala hasiera batetan hamar eskulangile etorri ziren. Gaur egun berriz artesauak hogeitamabostera



iristen dira. Dagoeneko ohartuko zineten urtero geroz eta artesau gehiago etortzen direla; gure ustez arrazoiak bi izango liriateke. Alde batetik Hernaniko erakusketa hau finkatuta dagoelako, hamahiru urtetan ospatu den ekitaldi bat finkatuta dagoela esan bait genezake. Eta bestetik artesauak egun hauek behar dituztelako aurrera ateratzeko. Erakusketa hauetan beraien eskulanak saldu eta enkargu berriak hartzen dituzte era horretan artesauak beren lanpostua mantentzen dute eta era berean gure kulturak ere bizirik irauten du. Azken arrazoi honi loturik zera esan genezake, artesauen salmentak oso onak direla, eta arlo honetan inguruko herrietatik etortzen direnak hartu behar dira kontutan, antolatzaileok geroz eta nabarmenago ikusten bait dugu fenomeno hori.

Ohartu gabe HERRI JAKINTZA TALDEKO partaideek pixuzko ardura hartu dugu alde batetik artesauen aurrean, lehen esan dugun be-



zala horrelako egunak behar bait dituzte, eta bes-tetik herritarren aurrean, gustora hartzen bait dute sortzen den festa eta euskal giroa. Hitz hauekin jarraitzeko borondatea adierazi nahi dugu, noiz arte den ezin genezake esan. Egitura aldatuz gure helburuak mantentzea izan da kezkarik nagusiena. Bide honi jarraituz 1991.urtean talo postua ez genuen antolatzaileok jarri eta Soralezeko talogile batzuk deitu genituen. Erantzuna baiezkoa izan zen eta era honetan geure aldetik lana ikaragarri murriztu genuen baina herritarrek era berean beren taloak izan zituzten. 1992-an berriz aldaketa sagardotegiari tokatu zaio eta lehengo bideari jarraituz Hernaniko sagardotegi batekin harremanetan jarri eta era honetan beraiek jarriko dute zerbitzu hori. Sagardotegia, denok ikusi duzuen bezala, Otsuene izan da. Aldaketa hauekin antolaketa egoki bat lortu nahi dugu baina sortzen den giroa eten gabe. Beraz garbi dago hasierako helburuak mantenduko ditugula, baina horrek ez du esan nahi antolaketak berdin jarraituko duenik.

Gaur egun dugun kezkarik nagusiena etortzen diren artesauak ahalik eta erosoan egotea da. Kezka horietan eta lehenik eguraldiarena dugu. Badakigu arazoa ez dela egun batetik bestera konponduko eta erakusketa antolatzen dugunok ez gara nahikoak arazoari aurre egiteko, beraz gai honetan ezinbestekoa dugu Udalaren laguntza eta aholkua. Hamahiru urtez behin bakarrik egin digu benetako



eguraldi txarra eta joan den urtean egin zigun eguraldi kaxkarra dela eta arazo honi irtenbide bat bilatzen hasi beharko dugu. Beti ere guretzat Gudarien Enparantza da tokirik aproposena, nahiz eta urte batean Ezkiaga Pasealekuan egin behar izan genuen bestean obrak bait zeuden. Hasiera batetan artesau guztiak arkupe-tan sartzen ziren, orain berriz ezin izan ditugu denak barruan sartu. Gure aldetik Udalarekin harremanetan jarriko gara arazo honi bide bat bilatzeko asmotan; kontutan eduki erakusketak hartu duen dimentsioa ez dela nolanahikoa.

Lehen adierazitako aldaketek helburu zehatz bat badute, antolatzaileok beste ekintza batzuez arduratzea edo gutxienez aztertzen hastea. Momentuz ekintzak egun bati lotuta egingo dira, hau da, egun batean ospatzen diren ekitaldiak izango dira. Adibidez barazki erakusketa sakondu, azken urte hauetan -arazo pertsonalak direla eta -, nahiko ahula geratu bait da. **HERRI JAKINTZA TALDEAN** oraindik ez ditugu ahalbide guztiak aztertu eta lerro hauek aprobetxatuz, edozeini ideiarekin bat bururatzen bazaio, arren taldearekin harremanetan jarri eta adieraz iezaiguzue. Bestalde argi daukagu proposatzen diren edo proposatuko diren ideiak erakundearen laguntza beharko dutela eta era horretan erakunde horien - nahiz pribatu nahiz publiko -, jarrera ezin hobea izango dela espero dugu. Orain arte erlazioa Udalera mugatu da eta beste bideak oraindik ez dira ezta aztertu ere egin, beraz bide honetan dena dago egiteko. Hemendik erakunde hauen jarrera ona eskertu nahi genuke. ○